



Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **6012**

Egilea / Autor: **Karlos Linazasoro**

Saila / Colección: Narratiba, 109

ISBN / EAN: 978-84-9109-215-5

Salneurria / Precio: 13 € (BEZ barne – IVA incluído)

Orri kopurua / N° páginas: 96

Formatua / Formato: 15 x 22 cm

Egilea / El autor

Karlos Linazasoro Tolosan jaio zen 1962an.

Euskal Filologian lizentziatua. Tolosako udal liburutegiko arduraduna da. Haur eta gazteentzat liburuak idatzi ditu, eta helduentzat lau ipuin liburu: *Eldarnioak* (1991), *Zer gerta ere* (1994), *Ez balego beste mundurik* (2000) eta *Ipuin errotikoak* (2001). Antzerki lan bat ere idatzi du, *Burdindenda* (1998), eta hiru poema liburu: *Udazkeneko karabana erratua* (1991), *Apunte eta ahanzturak* (1993) eta *Euriaren eskuak* (1995). 2001. urtean "Euskadi Saria" irabazi zuen, haur eta gazte literatura saillean *Bota gorriak* izeneko ipuinarekin. Egilearen beste liburu batzuk dira *Inoiz izan garenotan* (2002) poesia liburu, *Mendekuaren graziaz* (2004) ipuin liburu, *Beti eder dena* (2006) aforismo liburu, *Hogeita sei urte geroago* (2006) haurrentzako liburu, *Diotenez*, Erein-Euskadiko Kutxa Narratiba Saria 2007, eta *Gizakiaren minak* (2010).

Lana / La obra

1978ko martxoaren 28a. Gau erdian, T.-tik pasatzen den 6012 zenbakidun merkantzia trenak, errailetatik irten, eta lehergailu bat utzi du trenbidearen erdian: 55 tona azido zianhidriko daramatzen zisterna bat. La probintzia osoa desagerrarazteko indarra duen bomba bat. Lehen azterketen arabera, zisternak lehertzeko arrisku handiak ditu. Ezin liteke bertatik milimetro bat ere mugitu. T.-ko presidentearen agindupean, segituan jartzen dira martxan larrialdietarako gizatalde eta protokolo guztiak. Era berean, T.-ko biztanleriak laster jakiten baitu istripuaren berri, beldurra eta psikosia pizten dira herrian, kaos ezin esan ahalako bat. Agintari zein teknikoek lanean diharduten bitartean, T.-ko biztanle askok eta askok, izuak hartaraturik, beren etxeak uzteko erabakia hartzen dute. Egun osoa pasako dute trenbidean lanean, eta ilunabar arte inork ez du jakingo zisternarekin zer gertatuko den.

Garaiko giro politiko-sozial nahasi eta izugarriak ere berea jartzen du suspentseko *nouvelle* txundigarri honetan, pertsonaien arteko harremanak zipristinduz, batzuen makurrak eta besteen elkartasun sentimenduak bistaratuz. Urte haietako fresko ederra.

